

## Napo Lertxundi, Saizar sagardotegia

# “Sagardo orekatu, freskagarri eta arina”

### Zer moduzko sagardoa duzue aurretan?

Aurretan dastatzera emango dugun sagardoa, hori kolorekoa izango da, tonu berdeekin. Uzta honen hartze azkarrak ahoatzeko lehorra den produktua ekarri du, txinparta finduna, eta ahoan, fruitu zuridun sentazioa ematen duena. Saizarren dastatzeko zain duzue, sagardo orekatu, freskagarri eta arina.

### Zer bezero aurreikuspen duzue?

Astelehenetik ostiralera, denboraldi berriko sagardoz gozatu eta dastatzera datorren publikoa espero dugu eta asteburuetan, larunbatean eta igande eguerdietan bereziki, sagardotegiko planarekin datozen familiak, edota dezente lehenagotik sagardotegia eta nekazaltu-



Urtarrilaren 16tik aurrera hasiko da txotx garaia.

rismoren bat erreserbatuta, beste probintzietatik datozen familia eta koadrilak.

### Zer berezitasun ditu Saizarren eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Bezera mota guztiei egokituriko

menu eskaintza prestatu dugu prezio ezberdinekin. Gainera, sagardotegi erakargarria dugu Saizar, instalakuntzen handitasunagatik, eta iaz egin genuen irudi berritzeagatik.

### Gonbidatu bezeroak zuenera...

Etorri familia edo lagunekin eta gozatu upategi handi batez, eta otordu eder batez, prezio arrazional baten truke.

### Saizar sagardotegia

**Helbidea:** Kalezar, 39.

**Telefono zenbakia:** 943 37 39 95.

**Web orria:** [www.sidrassaisar.com](http://www.sidrassaisar.com)

**E-posta:** [sidreria@sidrassaisar.com](mailto:sidreria@sidrassaisar.com)

**Irekiera:** urtarrilaren 16tik aurrera, egunero eguerdi eta gau partean, igande gauetan eta astelehen eguerdietan izan ezik.